



Dantzari txikien eguna.- Eguraldi paregabearekin burutu dute aurteangoan ere Erketz EDT-k antolatutako dantzari txikien eguna. Goizean goizetik hasita, herrian barrena ibili dira Kukuka eta Erketzeko dantzariak eta Urretxu eta Oretako etorritako lagunak. Euskal dantzen errepertorioa goitik behera errepasatu dute eta ez da agurrik, kalejirarik edota muxikorik falta izan. Hala ere, egun osoan zehar herrian ibili diren gaztetxo denek erakutsi dute dantzarako dohain paregabeak dituztela, erresistentzia bikaina edukitzeaz batera. Izan ere, egun guztian aritu dira gelditu ere egin gabe dantzan eta antolatzaileak eguraldi txarrak beldurtzen bazituen ere, azkenean bero egin die. Horrexegatik neka-neka eginda eta izerdi patsetan amaitu zuten goizeko saioa dantzari txikiek. Dantza egiteak sortzen duen nekeaz errekuiperatzeko, Saustatxo eta Semblante Andaluz elkarteetan bazkaria goxoa prestatu zieten kanpotik etorritako dantzari txikiei. Arratsaldean, Okendo plazan bildu ziren talde guztiak eta emanaldi handi bat egin zuten, urte osoan zehar egindako lana herritar, lagun eta gurasoen aurrean erakutsi asmoz. Eguna birbiltzeko, fandango eta arin-arin banaren ostean, kalejira erraldoi bat osatu zuten Okendo plazan guraso, haur eta herritarrek.

3 MUSIKA

Musika eskolan izena emateko epea zabalik dago

Lasarte-Oriako Udal Musika eskolak 2011-2012 ikasturtea amaituko du ekainaren 19 eta 20ko kontzertuekin. Gainera, Udal Musika eskolak gogorazten du 2012-13 ikasturterako aurrematrikula egiteko epea irekia dagoela eta ekainaren 1ean amaitzen dela aurrematrikula egiteko epea.

6 KIROLA

Ostadar Ohorezko erregional mailara igo da

Klubak denboraldi osoan egin dako lan bikaina biribildu zuten Ostadar erregional mitulek larunbatean. Michelingo berdegunean Zumaiaiko taldeari 3-2 irabazitako partiduan herriko zaleen laguntza izan zuen. Kadeteek berriz, Euskal Ligara egingo dute jauzia hurrengo denboraldian.



MEKANIKA MANTENIMENDUA

Diseina ezazu zure etorkizuna!

HEZI BIZI HAZI

ELEKTRIZITATEA ELEKTRONIKA

IKASTETXEA IKUSTEKO AUKERA

PUERTAS ABIERTAS

MAIATZAK 31 MAYO

17:00 - 20:00

DISEINUA INPRIMAKETA

SALESIANOS urnieta

SALESIARRAK

Aurreiskripzio epea:

Maiatzaren 28tik ekainaren 8ra

www.salesianosurnieta.com
943 551 789

Aduituak dio

Ostadar

Ilusioa amaitu bitartean

Zutabea irakurtzen ari zarenerako Ostadaren eta Zumaiaikoren arteko kanporaketak bere onak emanda izango ditu irabazleak Ohorezko Preferente Mailan jokatu du. Eta emaitza garrantzitsua izanik, datorren denboraldian Gipuzkoako kategoria gorenean jokatu nahi dugulako, ez du gure lana baldintzatuko.

Ostadar S.K.T.ko futbol sailaren xedea herriko gazteei ahalik eta kirol eskaintza erakargarriena ematea da, eta bide batez, gure klubaren eta Lasarte-Oriaren izena Gipuzkoako txoko guztietara zabaltzea.

Datorren denboraldian, gainera, Gipuzkoan ez ezik, Euskal Autonomia Erkidegora haizatzuko ditugu. Izan ere, Ohorezko Kadete mailakoek izugarriko balentria lortu dute taldea Euskal Ligarako sailkatuz. Euskal Herriko talderik indartsuenen aurka lehiatuko gara, eta besteak beste, Realak, Athletic-ek edo Alavesek hain beharrezkoa dugun belar artifizial berria estreinatuko dute. Luxu bat herriko futbolari eta futbol zaleentzat.

Lorpena, ordea, urtetan ereindako uztaren fruitua baino ez da. Gogotik egin dugulako lana harrobia lantzen eta gure gazteak hezten; bakoitza bere esparruan, bere eginkizuna zein den ahaztu gabe, baina guztiak helburu komun batekin: kalitatezko futbol eskaintza bermatzea. Eta horretan gabilta 450 bat guraso, 225 jokalaria, 25 entrenatzaile eta futbol atala gidatzen dugun 8 laguneko lantaldea. Herritar arruntak gara, guztiak ere Lasarte-Oriako abizenekin, Iturriondo, Martija, Olaizola, Berasategi, Castro, Rekondo, Belartietia eta Lasarte-Oriako kirolari estuki lotuta.

Baina dena ez da urre kolorekoa. Lan-taldea ez da nahiko genukeen bezain jendetsua eta mugatuta gaude ez dugulako lortzen gazte jendea gure dinamikara gerturatzea. Exijentzia maila, berriz, geroz eta handiagoa da esparru guztietan. Momentuz, herriko gazteen mesedetan lanean fin-fin jarraitzeko nahia eta ilusioa dugu. Ilusioa bukatzen denean, AKABO. GORA OSTADAR!

Futbolaren argi-ilunak

Futbola, kirol guztien artean errege. Haur guztiek nahi dute Ronaldo edota Messi bezalakoak izan. Deigarria da zein azkar ikasten duten, txiki-txikitik futbolari izatea zein ona den; gizartearen pertsona ereduagari bihurtzen zaitu futbolari famatu izateak, dirutza irabazten da, ez da ikasketa berezirik egin behar...dena dira abantailak haur zein heldu askoren ikuspegitik.

Hala ere, futbolaren munduan goraino iristea beste kirol-letan baino askoz zailagoa da eta askotan jendeak ahazteko joera izan arren, ez dago gaizki gogora ekartzea, asko direla bere urte hoberenak kirol honi eman ostean, profesionalerako bide horretan geratzen diren gazteak. Ikasketak utzita, adinak aurrera egin ahala profesionalerako ezer gutxi egin

dezaketela konturatu eta beren bizitza goitik behera eraikitzen hasi behar direnak 20 urteak beteta.

Arrakasta honen eraginez eta guraso zein haurren ekimenaz, herriko futbol taldeetan asko dira lehiatzen diren umeak. Adinak aurrera egin ahala ordea, zaletasun hori aldatzen joaten da eta herriko taldeetan kirola maite dutenek jarraitzen dute soilik, talde kideen artean lagun onak dituztenak eta bigarren familiatxo herriko futbol taldea dela sentitzen dutenak. Kirola egiten ondo pasatzea helburu dute azken batean eta lan guzti horrek ere bere fruituak ematen ditu. Lan gogoraren ondorio, entrenamendu askoren emaitzaren adibide garbia da Ostadar, aurreko maila ezberdinetako futbol taldeek lortutakoa bikaina izan delako.

Hitz eta pitz

Futbolzalea al zara? Jarraitzen al dituzu herriko taldeak?



Martin Jauregi

Ideiarik ba al daukagu ba futbolaz? Esperientziarik, behintzat, batere ez dugu guk. Txikitik, segan bai, baina futbolik, ez, baserrian ez zen horrelakorik. Leku ederrekoak gara gu! Futbol zelai batean ez naiz sekula egon, ez Michelinen ez beste inon. Ez ditut hemengo taldeak jarraitzen, ezta ezagutzen ere. Telebistan ikusten dut partiduren bat, baina besterik ez.



Eustakio Alkorta

Lehenago futbolzaleagoa nintzen, 16-20 urterekin, 80ko hamarkadan. Ez zuten Errealaren zelaia hemen egin, etorkizuneko zelaia hau zen eta pixkanaka hoztu egin zen zaletasuna. Aspertu bezala egin nau futbolak orain, betekada daukat. Enteratu naiz aurreko Ostadarrekoak ondo ibili direla. Gazteek kirola egin behar dute, edozein kirol, baina asko.



Josu Agirretxe

Partidu oso garrantzitsuk daudenean, bai, baina bestela, oro har, ez naiz oso zalea. Michelinera Texas edo Ostadaren partiduak ikustera ez naiz joaten eta ez dakit nola dabilzan. Garai batean Texas-en jokatzen nuen eta ondo iruditzen zait txikitik kirola egitea, balore eta ohitura onak dira, hori bultzatu behar da, berdin da zein kirol-letan, baina parte hartu.



Pepi Arzallus-Mañoli Altuna

Lan ona egiten du Ostadarrak eta laguntza ematen diogu, laguntza asko ez dauzka eta. Lehengo Udalarenak, ez behintzat. Orain daudenean, agian, bai. Bilobak jokatzen du eta suhia da entrenadorea, beraz, joaten naiz ikustera, ahal dudan guztietan. Aurreko ondo ibili dira. Lan asko egiten dute haurrekin. Txiki txikitik kirolean aritzea ondo iruditzen zaigu.

Iruditan

Lasarte eta Oriako baketzeko futbol taldea



Biyak Bat futbol taldea 1925. urtean Beasaingo Sempere zelaian. F. Galarzi

Biyak Bat herriko lehen futbol kluba izan zen. Bere sorrerak, izenean islatu nahi bezala, Oriako eta Lasarteko gazteen arteko lehiarekin amaitzeko asmoa zuen. 1923an sortu eta 1926. urtera arte jardun zen. 1924-1925 denboraldian ez zuen partidarik galdu eta 2. kategoriako B mailan txapeladun izan zen taldea. Ohiko taldea osatzen zuten, Unanue, San Sebastian, Zulaika, Urdanpilleta, Bienvenido, Alcorta, Fernandez, Yañez, Josetxo, Orue, Sesma eta Goyaran. Hau izan zen herriko futbol taldeen hastapena. Gerora asko izan dira herrian sortutakoak.

Txintxarri diruz laguntzen duten erakundeak



Lasarte-Oriako Udala
Euskara Batzordea



EUSKO JAURLARITZA
KULTURA SAILA



GFAko Kultura eta Euskara Departamendua

KULTURA

Udal Musika eskola ekintzaz ekintza

Udal Musika eskolan aurrematrikula egiteko epea ekainaren 1ean, ostiralean itxiko da

Lasarte-Oriako Udal Musika eskolak 2011-2012 ikasturtea amaituko du ekainaren 19 eta 20eko kontzertuekin. Baina ordu arte hainbat ekintzetan parte hartuko dute eskolako ikasleek bai herrian, baita inguruko herrietan ere.

Lasarte-Oriako Musika Eskolako ikasleak ez dira aspertu azken hamabostaldian. Orio, Astigarraga eta Donostian izan dira ekimen desberdinetan.

Miren Etxenagusia zuzendariak aipatu digunez, maiatzak 12an, Orioko danbolin Musika Eskolak antolatutako Trikitixa eta pandero topaketan izan ziren ikasleak. Egun berean, Astigarragan, flautako ikasleek Flautako Topaketan parte hartu zuten. Era berean, hastapena taldeko ikasleek Grosen Olatu talka ekimenaren barruan egin zen kontzertu erraldoian izan ziren.

Musika eskolako zuzendariak gogoratu duenez, herriko beste elkarteekin batera lan egiten dute eta Ttakunek Udalaren laguntzaz antolatzen duen Udaberriko bertso saioan ere parte hartu zuten. Honetaz gain, lehengo ostegunean, maiatzaren 24ean,



Flautako ikasleak Astigarragan izan ziren Olatu Talka ekimenaren barruan izan zen Flauta Topaketan. UDAL MUSIKA ESKOLA

piano entzunaldia egon zela ere aipatu digu.

Hurrengo ekintzak

Baina Udal Musika eskolako zuzendariak azaldu digunez, ez dira ekintzak amaitu.

Kurto amaierako kontzertuez gain, hauek ekainaren 19 eta 20an izango dira, hainbat ekimenetan parte hartuko dute ikasleek geratzen den hilabete honetan.

Honela, bihar gitarra entzunaldia eskainiko dute Manuel Lekuona kultur-etxean. Igan-dean, ekainaren 3an, trikitilari eta pandero joleak Andoainen izango dira Dantzari txiki

egunean parte hartzen. Eta ekainaren 15 eta 21ean, piano entzunaldiak izango dira Manuel Lekuonan.

Aurrematrikula

Era berean, Udal Musika eskolak gogora arazten du, 2012-13 ikasturterako aurrematrikula egiteko epea irekia dagoela.

Haurrentzako txokoak, hizkuntza musikal, armonia, abesbatza, instrumentu ugari eta helduentzako taldea ere eskaintzen ditu herriko musika eskolak.

Plazaren eskaera egiteko unean, 40 eurotako zenbate-

koa kontuan kargatuko da, plaza-eskaeraren kontzeptupean, eta dagokion matrikula egiteko unean deduzitutako zaio kopuru hori. Plaza baten eskabidea egin eta gero matrikula gauzatzen ez duenak ez du ordaindutakoa berreskuratze eskubiderik izango. Kultura sailak gogora arazten du, derrigorrezkoa dela aurrematrikula egitea plaza izateko.

Aurrematrikula Manuel Lekuona Kultur-Etxean egiten da 09:00etatik 13:00etara eta azken eguna hurrengo ostirala, ekainaren 1a izango da. Matrikula garaia uztailearen 2tik 13ra izango da.

FORU ALDUNDIA

Gipuzkoa berria aurkezten

Gipuzkoako Foru Aldundiak Gipuzkoa berria eraikitzeke dituen proiektu eta lehentasunak aurkeztuko ditu lurralde osoan.

Gaurtik ekainaren 4ra arte, eskualde desberdinetan izango da Aldundiak dituen proiektu eta lehentasunak herritar guztiarekin elkarbanatzeko. Lasarte-Orian ekainaren 1ean izango da Manuel Lekuona kultur-etxean.

Aldundiak azaldu duenez, bilera hauetan herritarrek etorkizunerako nahi duten Gipuzkoa eraikitzeke lehen aurrerapausoak eman ahaliko dituzte.

Bilerara joan nahi dutenek, aldeztu jakinarazi behar dute, 943 112 335 edo 943 112 342 telefono zenbakietan edo diputatunagusia@gipuzkoa.net helbide elektronikoan.



KIROLA

Kirol guneetan ate irekietako jardunaldia

Lasarte-Oriako Kirol Udalerriak "Kirolari atek zabalik" izeneko jardunaldia antolatu du ekainaren 3an, igandean kirol instalazioetan.

Ekimen honi esker, herritarrek kiroldegia eta kirol gunea modu librean eta ordaindu gabe erabili ahal izango dute, 9:00ak eta 13:00ak bitartean.

Horretaz gain, kiroldegian, goizean zehar doako kirol saioak eskainiko dira. Indoor txirindularitza goizeko 9:30ean, pilatesa goizeko 10:30ean eta aquarobika 12:00etan izango dira. Saio hauetan parte hartzeko eskaintako plaza kopurua mugatua dela jakin arazten du Kirol Zerbitzuak.

Ekintza berezi hauekin gonbidapena egin nahi zaie normalean kirola egiten ez duten Lasarte-Oriako herritarrei, "kirol instalazioak bisitatu ditzaten eta bertan ematen diren zerbitzuak erabiltzen has daitezen".

Zabaletako jaiek 25 urte betetzen dituzte

Teresa sorginak eta Zabaleta auzoko lagunek aurten ospakizun berezia dute, Zabaleta auzoko jaiek antolatzen hasi zirenetik 25 urte igaro dira. Horregatik, ekintzez betetako astea antolatu dute aurtengoan.

Haurrentzako ekintzak

Bihar, maiatzak 29tik ostegunera, 18:00etatik hasita, haurrek ez dute aspertzeko astirik izango.

Zabaletako jaietan ohikoak diren haurrentzako jolasak, eta japoniar bonbak izango dira. Baina hauetaz gain, asteazkenean Kukuka antzerki eta dantza eskolako gaztetxoen haien antzezlanak aurkeztuko dituzte eta ostegunean opari zozketa egingo dira.

Jaialdi handia

Ostiralean, hasiko dira ospakizun handiak. Kukuka antzerki eta dantza eskolako



Teresa sorginak agur berezia izango du aurten, batukada eta Porrotx bertan izango dira.

kideek antzerkia eskainiko dute.

Porrotxek eta "Dinbi banda" batukadak bere doinuekin, Teresa sorginari agurra egingo diote.

Ostean, dantza egiteko aukera izango da inguruetako herrikoietan.

Gauean, "Altxorren bila" filma botako dute, Kukukaren dantza garaikide emanal-

dia eta dantza egiteko gogoekin geratu denak erromeria izango du.

Txapelketak eta bertsoak

Larunbatean, berriz, Joxe Migel Aranzadi oroimenez eskoba eta mus txapelketa antolatu dira eta toka txapelketa ere izango da.

Haurrek ere izango dute bere txokoa. Ur jolasekin goza-

tu eta herri kiroletan haien trebezia erakutsi ahaliko dute.

Gaue berriz, Ane Labaka, Unai Muñoa, Andoni Otamendi, Amaia Agirre eta Patxi Etxeberria bertsoarietako saioa berezia eskainiko dute, eta auzoko lagunek aipatu digutenez, "haiek antolatutakoa".

Jarraian, Gazte Rock gaua izango da ordu txikiak arte.

Dantza eta herri kirolak

Igandean, Kukuka-ren euskal dantza saioa, Aimar Irigoien harri jasotzailea eta herri kirolak eta, noski proba mistoa nagusia izango dira.

Jarraian, herri bazkaria antolatu dute eta EGAN taldeak giroa du bazkal ostean.


Eta azkenik, gau aldean, Teresa sorgina traka handi batekin agurtuko dute.

Auzoko lagunek igandean denok baserriarrez jantzita joateko gonbita egiten diete lasarteoriarrei.




Aukera ugari Lasarte-Orian

Gaur egungo krisi ekonomikoa nabaria da esparri askotan eta merkatarizan, batez ere. Denda eta komertzio txikiak merkatalguneei eta internetko denda eta zerbitzu birtualei aurre egin behar diete, Lasarte-Orian hainbat dira lanean jarraitzen duten denda eta komertzioak. Horregatik, **Aterpea** (Merkataritza elkarteak) osatzen duten komertzioek eskertza agertu nahi diete herritarrei. Honetaz gain, Batzorde aldaketa egon dela ere jakitera eman nahi du herriko elkarteak.




MAITE BETELU gestoria, Maite
www.mbetelu.com




IZARRA bitxitegia, Rosa eta Juan



BIDEO LAGUNAK, Jose
www.bideolagunak.com



PARAFARMACIA LASARTE, Iñigo
www.parafarmacia.com



NOGUES farmacia, Gabriel



SUKO burdirindena, M^o Jesus



BAZAR ABREU, Diego
bazarabreu@hotmail.com



EKAIN LIBURUDENDA, Inaki
ekain-liburudenda.net




LARRAÑAGA harategia, Patsi Ana eta Narra
www.patxilarranaga.com




OKELA harategia, Marijo eta Joseba




ZUMABURU liburudenda, Lola
www.ilberiazumaburu.com



ARITZA mertzeria, M^o Carmen
www.merceraiaritza.com



DAKARA taberna, Maria eta Luti
www.dakarajatexea.com



LIZARRI optika, Izar




OLMI mertzeria, Julio, Olmi eta Lurdes




CARREFOUR, Iban
www.carrefour.es



ARREGUI elektrizitate, Mikael eta Ainhoa
www.electrizarregui.com



GOXOGI gozotegia, Inma eta Joserra




MAIANE perfumeria, Ana
www.perfumeriamaiane.com




ORMAZABAL loradenda, Ramon eta Koro
www.floristeriaormazabal.es



ALDATZ hortz klinikika, Juanjo
www.dentalaldatz.com



MARTINEZ MULTIMEDIA, Jesus
www.dentamar.com



ITURBE oinetakoak, Maixue



MARTIN BERASATEGI jateitea, Martin
www.martinberasategui.com



ARKUPE taberna, Jenni



URRUZOLA mertzeria, Lurdes

Aterpea
lasarte/oria

www.comercio-gipuzkoa.com



FUTBOLA.-

Ostadar Ohorezko Erregional mailan

Denboraldi gogoangarria osatu du klubak eta kadeteek ere Euskal Ligara egingo dute jauzi

Ereiten duenak fruitua jasotzen omen du, eta hori beti horrela gertatzen ez den arren, halaxe izan da oraingo honetan behintzat. Ostadar erregionaleko mutilek denboraldi osoan egindako lan bikaina birlabildu zuten Michelingo berdegunean Zumaiako taldeari 3-2 irabazitako partidurekin, herriko zaleen aurrean garaipen zirraragarria eskuratuz.

Gutxitan ikusi da Michelingo zelaia horren beteta. Zale asko euren bufanda eta bandera urdin-beltzak hartuta hurbildu ziren larunbat arratsaldean eta animo sutsuak eman zizkieten eurenari.

Partidu gogorra, zaila

Partidua bizia izan zen, ikusteko polita eta gol askokoa gainera. Ostadarrek bere dohairik nagusia erakutsiz jokatu zuten, baloia edukiz eta bere kalitatearekin arriskua sortuta hiru gol sartu baitzituen.

Zumaian jokatutako joaneko partiduko emaitza (1-1) alde bazuen ere, Ostadarrek gogotsu ekin zion partiduari, giroa eta etxean jokatzearen motibazioa euren alde baitzuden.

Lehen gola Javi Solchaga erdilariak sartu zuen etxekoztat, gol garrantzitsua inon-

dik ere, zaila izaten baita halako partiduetan markagailua irekitzea. Ez zien pozak asko iraun ordea, izan ere, lehen zatia bukatzerako gola sartu zuen Zumaiako taldeak korner baten bidez. Lehen zatia berdinduta amaitu zuten hortaz, banako emaitzarekin.

Burua hotz, bihotza bero

Belarrondoko handi samarra hartuta joan ziren Ostadarreko mutilek aldageletara. Baina Mikel Martija eta Asier Gorostegi entrenatzaileek aldagelan eurenak motibatzea lortu eta bigarren zatia gogotsu ekin zioten etxekoek. Partidua bila atera ziren argi eta garbi. Horren erakusgarri da egin daitezkeen bost aldaketak eginak zituela Ostadarrek bigarren zatia erdirako.

Hala ere, bigarren zatia hasi eta berehala 1-2koa sartu zuen Zumaiakok, eta horrek



Ostadar taldearen hamaikakoa, ilusioaren hamaikakoa, baina ezinbestekoa izan zuten aulkikoan lana mailaz igotzeko.

Ostadar bi gol sartzera behar izan zuten, eraso edo eraso, ez zeukaten beste aukerarik urdin-beltzek.

Burua hotz eta bihotza bero mantenduta, euren aurretan sinesten jarraitu zuten Ostadarreko mutilek, aukera garbiak sortuz eta atzean egin beharrek lanaz ahaztu gabe.

Gauzak horrela, Bigarren zatiko 30. minutuaren bueltan, David Martin Ostadarreko jokalariek erdiko marra baino pixka bat aurrerago baloia lapurtu eta txapela kentzeko moduko jokaldi bat

egin ostean, Zumaiakoren sarea zulatzea lortu zuten. Entzutekoa izan zen Michelingo harmailen orrua.

Ezina ekinez egina

Lan asko zegoen egiteko oraindik, gol bat falta baizitzaion oraindik Ostadarri mailaz igotzeko eta 2-2ko emaitzarekin, Zumaiako taldeak egingo bailuke aurrera.

Dena den, guztia zegoen erabakitzeke eta sartutako golak emandako motibazio gehigarri hori eta zortea lagun, 3-2koa sartu zuten

Zumaiakok bere atean 10 minutu inguru faltan. Halakotarik eta kirolean oro har, zoriak aurpegia eta infrentzia erakutsi ohi ditu eta oraingo honetan, Ostadarri tokatu zaio irribarre egitea, negar beste askotan egin baitute. Hurrengo urtean Ohorezko erregional mailan arituko dira, merezimendu osoz.

Afarian, giro ederra

Eguna borobiltzeko, Araeta jatetxean bildu ziren Ostadar osatzen duten 400 lagun inguru, urteroko afarian.

PILOTA.-

Herriarteko txapelketa hasi da

Herriarteko txapelketa hasi da beste urte batez, eta Lasarte-Oriari indarrak Donostiako taldearen aurka neurtzea egokitu zaio. Larunbat arratsaldean izan ziren kadete, jubenil eta senior mailako joaneko hiru partidua Michelingo frontoian eta orain, itzulerako kAtano III. pilotalekuan jokatu beharko dituzte.

Kadeteak ezinean

Ezin izan zuten ia ezertxo ere egin Aritz Solano eta Xabi Prieto herriko bikoteak donostiarraren aurka. Erraztasunez gailendu zitzaizkien Julen Chiapusso eta Mikel Aranguren, 3-22ko emaitza argiaz.

Jubenilak zoragarri

Partidu bikaina jokatu zuten Axier Arteaga eta Ander Rekondo herriarrek. Nagusitasunez irabazi zioten Egoitz Labaka eta Imanol Cristobal-ek osatutako bikote donostia-



2012ko herriarteko txapelketan Lasarte-Oriak aurtin ateratako taldea.

rrari.

Partidua borrokatua izan zen, landua eta Axier Arteagak aurrean bere dohainen berri eman zuen gantxo ederrak oparitu zituzten ikusleei.

Seniorrak bajaz beteta

Ezohiko bikotea atera behar izan zuen Jose Felix Solano hautatzaileak azken partiduan. Izan ere, azken orduko

lesio eta gaixotasunak tarteko, Jon Pello Artetxe eta Gorka Mendizabal bikoteak jokatu behar izan baitzuten. Bi aurrelariz osatutako bikotea beraz.

Emaitza noski, ez zen batere ona izan, baina aipagarria izan zen oso Mendizabalek atzelari lanetan eginiko lana. Iker Urmeneta eta Xabi Ortiz de Urbina donostiarrak erraz gailendu ziren, 7-22.

KIROL SUSTAPENA.-

Alebinen kirol sustapen jardunaldiak amaitu dira

Amaitu dira beste urte batez alebinentzat Udala kirol zerbitzuak urtero antolatzen dituen kirol sustapen jardunaldiak. Azaroa eta ekaina bitartean aritu dira kirol ezberdinak probatuz herriko hainbat gaztetxo eta Karlos Altuna udaleko kirol-technikariaren hitzetan, herriko kirolari gazteei "denetariko kirolak" egiteko aukera bat ematea izan du xede. "Bestela egin ezingo lituzketen kirolak egiteko aukera ere eman nahi izan diegu, eskola kirolak edo klubek eskaini dezaketenez gain", adierazi zuen Altunak.

Denera 14 saio egin dituzte eta kirol ugari egiteko aukera eduki dute gaztetxoek, besteak beste, herri-kirolak, urpekaritza, pilota, softbol, arte martzialak, patinak, futbola, eskalada, kirol egokitua,

waterpolo, tenis, hockeya, bizikleta, atletismoa... Bi monitoreren gidaritzapean aritu dira 25 bat haur programatik irauten duen 6 hilabetetako. Gusturen, urpekaritzan aritu zirela argi eta garbi utzi zuten denek.

Hala ere, bestelako helburu batzuk ere izan dituzte kirol sustapen jardunaldiek, euskararen erabilera bultzatzea kasu. Hori dela eta, euskaraz egin dituzte saio guztiak.

Azken saioan atletismoa landu zuten, jauziak, pisu jaurtiketa... eginez, baina beste bat jarri zituzten zozketan eta hiru gaztetxo irribarre ezpainetan zutela bueltatu ziren etxera, euren opariak eskutan hartuta.

Agenda

Jalgi Kafe-antzokia, maiatza bukaera arte



Emakume borrokalariak

Mundu Bat Gobernuz kanpoko Era-kundeak antolatutako "Amerika erdialdeko emakumeak: halakoak gara, halaxe borrokatzen dugu" argazkien erakusketa dago. Raquel Duran eta Amaia Vicentek Erdialdeko Amerikako emakumeen bizitza eta haien eginbeharrekoak aurkezten dira irudietan.

Lasarte-Oria

Hitzaldia

VILLA MIRENTXU

Asteazkena 30, 19:00etan

"Nola konpontzen ditugu gure familiako gatazkak?" dibulgazio hitzaldia eskainiko du Eusko Jaurlaritzako Familia Bitartekaritzarako Zerbitzuak. Eusko Jaurlaritzak eta Lasarte-Oriako Udalak antolatutako ekimena.

Musika

MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEA

Astearte 29

Lasarte-Oriako Udal Musika eskolako gitarra ikasleek emanaldia eskainiko dute.

JALGI KAFE-ANTZOKIA

Larunbata 2, 23:00

Trifulca Posse DJ hirukoteak (Zigor Lanpre DZ, Iñaki Bocos SYR eta Dj Pata) hip hop eta musika beltzako saioa egingo du.

Erakusketa

MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEA

Ekainaren 8a arte, 18:00etatik 21:00etara

Lasarte-Oriako danborradako 1947tik gaur egunera arteko argazki erakusketa.

EMAKUMEEN ZENTRO ZIBIKOA

Aste honetan zehar

Saharako errefuxiatuak bizi diren Tindouf-eko kanpamentuetako argazkiak ikusgai.

Zabaletako jaiak

Astearte 29

18:00etan, Haurren jolasak.

20:00etan, Japoniar bonbak.

Asteazkena 30

18:00etan, Haurren jolasak.

19:00etan, Kukuka antzerki eta dantza eskolako gaztetxoan antzerkia.

20:00etan, Japoniar bonbak.

Osteguna 31

18:00etan, Haurren jolasak.

19:00etan, Opari zozketa

20:00etan, Japoniar bonbak.

Ostirala 1

18:00etan, Kukuka antzerki eta dantza eskolako gaztetxoan antzerkia.

18:30etan, Porrotx eta batukada.

19:00etan, "Teresa sorgina"-ren jai-tsiera auzoko trikitilariekin.

19:30etan, Ingurutxo herrikoia.

22:00etan, "Altxorraren bila" filmaren proiektzioa.

23:00etan, Kukuka-ren dantza garaikide emanaldia.

24:00etan, Erromeria.

Larunbata 2

09:00etan, Diana.

11:30etan, Joxe Migel Aranzadi oroi-menez V. Eskoba txapelketa.

15:30etan, Joxe Migel Aranzadi oroi-menez V. mus txapelketa.

17:00etan, Toka txapelketa.

17:00etan, Ur jolasak eta herri kirolak haurrentzat.

23:00etan, Bertsolariak:

Ane Labaka

Unai Muñoa

Andoni Otamendi

Amaia Agirre

Patxi Etxeberria

24:00etan, Gazte Rock gaua.

Igandea 3

09:00etan, Diana eta auzo garbiketa txapelketa.

11:00etan, Kukuka-ren euskal dantza saioa.

12:45etan, Herri kirolak: Aimar Iri-goien harri-jasotzailea.

13:15etan, Proba mixta nagusia.

14:30etan, Herri bazkaria.

17:00etan, EGAN taldea.

20:30etan, Teresa sorginaren agurra eta azken traka.

Oharrak:

- Astearteko haurren jolasetan kamixeta bat eraman behar da hau mar-gotzeko.

-Igandean, denok baserritarrez jantzita joateko gonbita egin dute Zabaleta auzoko lagunek.

Herritarren txokoa

Eskutitza

PSE-EE-ren erantzuna LAB-en eskutitzari

Lasarte-Oriako Udalak gure herri eta bere herritarrei eragiten dien edozein gairi buruz arduratu behar da eta gai horien artean, Michelingo EREa dago, izan ere, enpresa gure udalerrian dago eta, batez ere, langile gehienak Lasarte-Oriako herritarrak direlako. Zer nahiago duzue Udalak Bateragune auzia, Lodosako ikastola, presoen eskubideei buruz,... iritzia eman dezan? Gure herriarekin zer ikusirik ez duten gaiak dira hauek.

Nire alderdiko bozeramaile lana nola egin behar dudan ez esatea eskertuko nizuke. Jarraian Eusko Jaurlaritzari Michelin 2-ko berindustrializazioko laguntzak desblokeatzea eskatzen didazue.

Jakin dezazuen, Lasarte-Oriako PSE-EE industriagune horren alde dagoela eta guk Udalak kudeatzen jarraituko bagenu (nik ere PSE-EE herrian alderdi bozkatuena izan zela gogoratzen dizuet) Eusko Jaurlaritzara joango ginatke proiektuaren jarraipena eskatzera, bertan nor dagoen kon-tuan izan gabe.

Baina niri ere gustatuko litzaidake, LABek, langileen egoeraz arduratzen den sindikatua legez, Pablo Barrio jaunari (Bildu) gure herriko beste industria eremuengatik apustu egitea eskatzea, hala nola, Teresategi.

Izan ere, Michelin 2-rekin ez da Lasarte-Orian dagoen langabezia arazoa konponduko, eta zuek jakingo duzuen bezala, Michelin fundazioko aholkularitza kontseiluko kide izaki, Michelin 2-n ezingo da edozein enpresa kokatu, bai ordea Teresategin.

Erredakzioan itzulia

Jesus Zaballos

Lasarte-Oriako PSE-EE

Haurren txokoa

Aurkitu 10 arrain

R	B	I	X	I	G	U	A	E	H	B	J	C	J	S
N	H	F	A	F	P	D	D	Y	M	V	I	H	G	C
N	M	B	L	N	U	B	Z	X	D	X	B	N	A	U
T	U	K	L	F	C	L	W	V	E	F	U	O	M	H
N	H	A	N	T	X	O	A	L	Z	Q	R	L	T	E
B	Z	Z	B	P	W	T	P	Y	P	R	C	A	B	G
F	M	T	E	H	X	I	T	S	A	K	A	B	R	A
W	N	A	R	K	Y	Q	O	X	T	A	S	S	J	L
Y	T	G	D	X	J	M	T	Y	A	J	F	S	J	U
R	T	E	E	Q	M	I	U	C	R	N	N	A	H	Z
N	Q	L	L	M	X	B	G	H	R	Y	A	R	X	E
I	R	G	A	T	T	R	V	I	A	N	I	D	X	A
F	H	H	Q	Q	P	I	I	L	I	C	P	I	W	D
O	M	C	L	Y	A	L	R	P	N	F	U	N	X	L
Y	B	C	Z	X	V	D	E	I	A	S	L	A	W	I

euskal.info

Bazenekien...

...munduan garunik handiena duen animalia inurria da.

Landaberri ikastolako 3. zikloko ikasleak



Desfilearen ibilbidean, I Formulako autoak ere aritu ziren bueltaka.



Jende ugari bildu zen desfilean parte-hartu edota ikustera eta Kale Nagusia kolore berdez jantzi zuten Kukukako lagunek.



Dinbi Bandaren lehen emanaldia benetan ikusgarria izan zen.



Trikihotsek desfilea musikaz girotzeaz gain, gauean ere giroa jarri zuen.

Kukukaren berdea nagusi

Festa handi batekin amaitu dute hamabostaldia

Herriko dantza eta antzerki eskolak egun osoko jaialdi handi batekin amaitu nahi izan zuen jendetsua, oparoa eta parte-hartze handikoa izan den hamabostaldia. Hamargarren urteurrena ospatu asmoz, egun osoko egitarau zabala prestatu zuten larunbatean eta eguraldi txarra emanda bazegoen ere, gozatu ederra hartu zuten festan parte-hartu zuten guztiek.

Jon ALTUNA EGITEGI

Amaitu da Kukuka dantza eta antzerki eskolaren hamabostaldia. Aurtengoa berezia izan da, X. urteurrena modu ezin hobean ospatu nahi izan baitzuten larunbateko jaialdi erraldoiaren bitartez.

Marea berdea

Dultzaineroek esnatu zuten herria larunbat goizean, eta ostean, Kukuka dantza eta antzerki eskolako kideek desfile koloretsua egin zuten Trikihotsen zuzeneko musikarekin lagunduta. Benetako marea berdea izan zen, parte-hartzaile guztiak

Kukukaren kamisetarekin atera baitziren eta ikustera ere, jende asko bildu zen. Batzuk euren senide edo lagunak ikustera eta beste batzuk kuriositatez, kalean musika eta festa handia zeudela ikusita.

Bazkaria eta bazkalostea

Okendo plazan bazkari herrikoa egin ostean, ez zen bertso, antzerki edota musikarik falta izan. Ahuen taldearen doinuak, herriko bertsolariak eta Kukukako helduen taldearen emanalditxoak izan baitziren ikusgai.

Jalgune eta Dinbi Banda

Arratsaldean, Jalguneko lagu-

nek antzerki polit bat eskaini zuten, eta ez zen ostruka, sumo-borrokalaria edota ardirik falta izan. Ondoren, dantzan jarri zuten plaza guztia, euren kantaren koreografia erakutsiz Kukukako lagunei.

Hori amaitu bezain pronto, Oihan Agirretxek zuzentzen duen Dinbi Banda batukadak sekulako giroa jarri zuen Okendo plazan. Sortu berria da banda, eta euren lehen emanaldian dantzan eta mugimenduan jarri zituzten bazkarian nagitutako gerriak.

Gauean, kontzertuak

Egunari eta bide batez X. urteurrena ospatzeko festari amaiera bikaina emateko, arratsaldean, Alegitik gurera etorritako Manillares Iturriaga taldea izan zen entzungai eta talde ezagunen bertsoak joz, dantzan jarri zuten Okendo. Gauean berriz, The Garax, Gaueko Itzalak eta Trikihots taldeekin gaueko ordu txiki-tara arte luzatu zen festa.

ANAIAK

JANTZI-DENDA

ERRETIRATZEAGATIK LIKIDAZIOA!

Kale Nagusia 25 • LASARTE-ORIA • Tel.: 943 362386

